

bildu ERABAKI *ra*
súmate a decidir

KONGRESUKO
ETA SENATUKO
HAUTESKUNDEAK
2015

EH BILDUREN INTERBENTZIORAKO
PRINTZIPIO OROKORRAK

Printzipio orokorrak

A benduaren 20ko Espainiako Estatu Kongresurako eta Senaturako hauteskondeak krisi testuinguru batean egingo dira. Krisi politikoa, krisi ekonomikoa, krisi soziala... Estatu eredu bera dago krisian, inboluzio demokratikoan eta birzentralizazio prozesu baten baitan murgilduta. Egoera horretan, eta inork bermatzen ez duen ustezko erreforma baten atarian, Estatuak ez dauka inolako eskaintza demokratikorik Euskal Herriarentzat.

Ikuspegi politiko, ekonomiko eta sozialetik, Euskal Herria bidegurutze garrantzitsu batean dago. Bere etorkizuna, herri, subjektu politiko eta gizarte bezala dago jokoan. Munduan eta Europan zehar Estaturik gabeko Herrietan erabakitze eskubidearen aldarrikapena bera eta eskubidea gauzatzeko urratsak emateko aukera indartzen eta zabaltzen ari da. Euskal Herriari ere bere unea heldu zaio, eta Madrilek eraiki duen ukazioaren eta inposaketaren horma gaindituz, bere etorkizuna erabakitze bideari ekin behar dio, herritik herrira, inori baimena eskatu gabe.

Inposizioak eta ukazioak definitzen dute Espainiako Estatuaren jarrera Euskal Herriarekiko. Horren aurrean konfrontazio demokratikoa dugu oinarrizko bitartekoa. Beraz, ez gara egongo Madrilen gure menpekotasunaren baldintzak hobetzeko. Estatuari gure bideari ekingo diogula eta gure erabakiak eta gure askatasuna defendatuko ditugula esango diogu. Horretarako, EH Bilduk interlokuzio propioa eta indartsua izateak berebiziko garrantzia du. Euskal demokrazia eraikitze garaia dela eta, Euskal Herriak bere etorkizuna libreki erabakitze eskubidea duela adieraziko dugu argi eta garbi.

Gizarte libre eta duin baten alde borrokatzen du EH Bilduk, bere buruaren jabe izango den gizarte baten alde; askapen sozialaren eta nazionalaren bidean; hezkuntza, osasuna, lan baldintza duinak eta zerbitzu sozialak bermatuak izango dituen gizarte baten alde. Norabide horretan, burujabetza politiko, ekonomiko, sozial, kultural, hizkuntzako eta ekologikoaren defentsa egingo du EH Bilduk.

Emakumeen eskubideen defentsa gure ikurretari bat izango da, berdintasunaren eta parekidetasunaren bidetik. Burujabetza marko horren bitartez ahalbidetuko da eredu sozial bidezko eta solidarioago bat gauzatea.

Demokratizazioa

Azken urte hauetan Espainiako Estatuak bizi duen inboluzio demokratikoa areagotu egin da. Oinarrizko askatasun demokratikoek eraso larriak jaso dituzte; eskubide zibil eta politikoak urratzen dira etengabe; herrien eskubideen aldarrikapenaren aurrean inposizioaren eta ukazioaren horma aurkitzen dugu.

Beraz, horma hori gainditu beharra dago eta, erabakiz erabaki, gure bide propioa egin. Zentzu horretan, konfrontazio politikoa eramango dugu Madrilera, hemen martxan dagoen herri bat dagoela esatera, menpekotasuna onartzen ez duen herri bat dagoela esatera.

Espainiako Estatuak bizi dituen krisi politiko eta ekonomikoaren testuinguruan, haustura demokratikoa aldarrikatu eta hausturaren bidean lagunduko dugu. Euskal Herriko demokratizazioa lortzeko, aktibo bat izango da EH Bildu. Eta bide horretan, beste nazioekin batera, prozesu eratzailleak bultzatuko ditugu.

Helburu horrekin, beste nazioetako aliatuekin elkarlanean arituko gara. Urte hauetan egin dugun ildoarekin jarraituz, Espainiako estatuko ezker sektoreekin aliantzak eta sinergiak eraikitzen jarraitu nahi dugu eta nazioarteko elkartasunean sakontzera goaz.

Gatazkari eta ondorioei konponbide integrala

Lehentasuna da Euskal Herriak Estatuarekin daukan izaera politikoko gatazka bide demokratikoetatik gainditzea. Bake eta normalizazio politiko eszenatoki bat lortu nahi dugu, eta horregatik, prozesu integral bat sustatzeko eta indartzeko konpromisoa hartzen dugu.

Gatazkaren konponbidearen alde indarra egiteko eta eremu politiko, instituzional eta sozial ezberdinetan inplikazio mailak bizkortzeko aukerak hobesteko, premiazkoa da EH Bilduren ordezkariaren interbentzioa. Espainiako Estatuak konponbiderik nahi ez badu ere, gatazkaren konponbidean azken helmugaraino iritsi behar dugu, alor honetan euskal eragile guztion artean hartzen ditugun erabakiekin baterako euskal bidea eraikiz.

Inoren eta inolako eskubiderik urratuko ez den eszenatoki bat sortzeko ahalegina eta ekarpena egingo du EH Bilduk. Eskubide zibil eta politikoen aitortza eta errespetua erdiesteko lan egingo dugu. Euskal Herriari dagozkion eskubideak Madrilen aldarrikatzeko eta defendatzeko konpromisoa hartzen dugu euskal herritarren aurrean.

BIKTIMAK- ERRELATOA:

EH Bildu biolentziaren biktima guztientzat egia, justizia eta erreparazioaren printzipioak oinarritzat hartuta eta sufrimendu ororen aitortza eta salbuespenik gabe biktima guztiak aintzat hartuta arituko da bere jarduera politikoan.

Modu aldebakarrean eta inolako baldintzarik ezarri gabe urratsak ematen jarraitu behar delakoan gaude, beti ere bidezko bakerako eta egiazko elkarbizitza demokratikorako bidean aurrera egiteko ezberdinen elkarguneak izango diren esparru berriak sortzeko helburuarekin. Horrela, euskal herritarren artean bake eta askatasun eszenatokia eraikitzeko gure konpromisoa berresten dugu.

Euskal gizartea bezain anitza den errelato anitzean bukatuko den ibilbide partekatua abiatzeko gonbitea egiten dugu. Errelato guztiekin osatuko den errelatoa, zeinetan sufrimendu bat bera ere ez dena ahaztuko edo ezkutatuko. Indarkeriarik gabeko eta giza eskubideen urraketarik gabeko etorkizuna eraikitzeko oinarria izan behar da askotariko errelato anitz hori.

Iragana ez da eraikitzen, kontatu egiten da, eta denok daukagu gatazkaren bizipen propioa eta ondorioz, gure kontakizuna, inori ezin zaiona inposatu. Memoria inklusibo eta osoa eraikitzeko lana egingo du EH Bilduk.

ESPETXE POLITIKA

Egun, izaera politikoa duen gatazkaren testuinguruan 400 euskal hiritar baino gehiagok jarraitzen dute preso sakabanaketaren politikaren baitan. Auzia ez da juridikoa; erabaki politikoa da presoekiko mendeku politika mantentzea, nahiz eta jakin horrekin batera presoek eta senitartekoei kalte eta sufrimendu handia eragiten zaien.

Euskal presoak Euskal Herrian egon behar dira, etxean, salbuespenik gabe. Gizartearen gehiengo zabal baten aldarrikapen argia da. Gatazka politikoaren konponbide integralerako ezinbestekoa zaigu preso dauden pertsonak gogoan izatea. Euren, presoek, modu argi batean euren borondate osoa adierazi baitute, Euskal Herrian irekita den ziklo politiko berriari ekarpena egiteko.

Bakea eta elkarbizitza helburu duen garai berri batean, legedia errealitate politiko berrira egokitu behar da. Norabide horretan, salbuespen legediaren desaktibazioa ezinbesteko urratsa da.

Espainiako Gobernuaren espetxe politikarekin amaitzeko lan egingo du EH Bilduk. Hauek izango dira gure lehentasunak: euskal presoek Euskal Herriratzea; preso gaixoen askatasuna; presoekin interlokuzio zuzena garatu eta beraien aldarrikapenak plazaratu. Norabide horretan, beste taldeen konpromisoak bilatuko ditugu.

ARMAGABETZEAN ETA DESMILITARIZAZIOA

ETaren armategiak deusestatzea da helburua. Horretarako, zigilatze eta egiaztatze prozesua lehenbaitlehen bukatu behar da eta nazioarteko Batzorde bat sortu horri sostengua emateko, armategi guztien suntsitzeraino.

Gobernu espainolaren portaerak ez du laguntzen. Armagabetzea tratatu besterik ez du egiten, eta horrekin bakea eta konponbideen aurkakoa bezala proiektatzen da.

Polizia Nazionalaren eta Guardia Zibilaren presentziaren murrizketa eskatzen dugu iadanik. Hori burutu aldera, plan bat zehatza egin beharra dago, eta horrekin batera euskal poliziek euren funtzioak eskuratzeko.

Espainiako poliziek Madrilen proiektu politikoa inposatzeko erabiltzen dira eta, azken finean, euskal herritarrok gure buruaren jabe izan ez gaitezen tresnatzat hartu daitezke. Ez daude hemen gure eskubideak babesteko, oztopatzeko baizik, eta nahi ez dugun marko legala inposatzeko.

ASKATASUN DEMOKRATIKOAK

Eskubide zibil eta politikoak murrizten dituzten legeak bertan behera utzi behar dira (Mozal Legea, Zigor Kodea, yihaidismoaren aurkakoa,...). Eskubide guztiak pertsona guztientzako.

Gure bidea, burujabetzaren bidea, erabakiaren eskutik

Euskal Herria nazioa da, subjeto politiko bezala aitortua izan behar da, eta euskal herritarrek modu libre eta demokratikoan bere etorkizuna eraikitzeko eta erabakitzeko gaitasuna dute. Euskal Herria nazio gisa aitortzea eta nazio gisa dituen eskubideen errespetua exijitzea izango dira gure jardun politikoaren ardatz nagusiak.

Euskal herritarren borondatea errespetaraztea izango da gure lehentasuna, herri gisa dagozkigun eskubide guztien defentsan. Konfrontazio politikoa klabe independentistan bultzatuko du EH Bilduk.

Ezinbestekoa da guk gure erabakiak hartzea, hemen, Euskal Herrian, mugarik gabe, gure burujabetza babestuz. Euskal Herriari buruzko erabakia euskal herritarrei dagokie; beraiek dira Espainiako zein Frantziako estatuarekin edota Europako beste herrialdeekin izan nahi duten kanpo zein barne harremanen markoa zein izango den erabakiko dutenak.

Oraingo markoa agortuta dago, ez digu ezer eskaintzen. Ez dugu ontzat emango gure aitortza eta herritarron erabakitzeke ahalmena jasotzen ez dituen lege arrotz baten erreforma. Euskal Herriarentzat prozesu eratzailera egin behar dugu, eta horretarako burujabetzaren eta independentziaren aldeko indarra erakustea oso garrantzitsua da.

Era berean, Euskal Herriak erabateko burujabetza behar du, justizia sozialean eta aberastasun partekatzean oinarritutako eredu ekonomiko eta soziala zein izango den euskal herritarrek beraiek erabaki dezaten.

Herri honen burujabetza arlo guztietan aldarrikatuko dugu, erabakiz erabaki. Eginbehar honetan beste nazioetako kideekin elkarlana sustatuko dugu, bereziki birzentralizazio eta eskudunzten kontrako politika areagotzen ari den testuinguru honetan.

Eskubide sozialen defentsa

Europako eredia es da gure eredia. Europatik datozen lege askok gure eskubideak murrizten dizkigute. Bruselatik egiten dugun bezala, Madrildik ere horren salaketa egingo dugu.

Izango dugun parte-hartzea Euskal Herriko herritarren eskubideen defentsaren konpromisoan oinarrituko da; gure interbentzioaren bidez salatuko dugu Espainiako estatuak instituzioak erabiltzen dituela gure eskubideak urratzeko eta babesten ez dugun garapenean oinarritutako sistema ekonomikoa inposatzeko.

Egungo ereduak aberatsen eta pobreen arteko tarte handitu egin du ikaragarri. Madrilek Europar Batasunak bultzatutako neurriak inposatu dizkigu: austeritatea, murrizketak... pertsonen eskubideen ordez merkatuaren beharrak lehenetsi dira.

Eskuineko indarren politiken ondorioak denok ari gara pairatzen: langileak, pentsiodunak, emakumeak, gazteak... gizarteak, orokorrean. Termino sozial eta ekonomikoetan, eta baita politikoetan ere, urteotan, kostata, langileen borrokari esker irabazitako lorpen txikiak, eskubide sozialak, desmantelatu egin dituztelako edota arriskuan direlako; eta, horrekin batera, eskubide zibil eta politikoak galbidean jarri dituztelako.

Eredu horren aurrean justizia sozialean eta elkartasunean oinarritutako eredia aldarrikatzen du EH Bilduk. Beste gizarte eredu bat nahi dugu: justua, soziala, irekia, ekologista, berdintasunean oinarritutakoa, baketsua... Krisiaren kostoa berdirezionatzeko borroka indartuko du EH Bilduk, finantza eremuak sorturiko krisiaren inpaktoa eta eragina herritarrek ordaintzen jarrai ez dezaten. Beste Euskal Herri bat eraiki behar dugu, herritarrekin batera.

Lan Harremanetako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua aldarrikatzen dugu, euskal erakundeei eta eragile ekonomiko, sindikal eta sozialei ahalbidetuko diena eskumen juridikoko tresnak eduki ahal izatea, enplegu politika eta babes sozial subiranoak indarrean ezarri ahal izateko. Enplegu duina, eskubideduna eta kalitatezkoa sortzeko eta mantentzeko konpromiso hartzen dugu, langabeziari eta prekarietateari aurre eginez. Hezkuntzan, osasungintzan, administrazioan, zerbitzu sozialetan eta mendekotasuna duten pertsonen arretan enplegu publiko duinaren garapenaren defentsa egingo dugu.

Politika sozialen esparruan, pertsona guztiak praktikan egiazko berdintasuna izatea eta babes sozialera indartuko duten politika publikoak bultzatzea bilatuko du EH Bilduk. Hezkuntzan, osasun arloan, etxebizitza politikan eta politika sozialetan eredu publikoaren defentsa egingo dugu.

EH Bilduk emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eremu guztietara eramango du, eta emakumeen eskubideen defentsa irmoa egingo dugu (abortua, jazarpenaren salaketa,...). Pertsona orok bere gorputzarekin egin dezakeenaz erabakitzekeo eskubidea dauka.

TTIP-en aurkako posizio irmoa dugu. Akordio horren bidez herrien burujabetza eta pertsonen eskubideak merkatuen menpe geratuko dira, horiek etekin handiagoak erdiesteko helburuarekin. Herrien auto antolaketaren eta pertsonen eskubidearen eta duintasunaren aurkako eraso argia da.

Natura, ingurumen eta ekologia jasangarriarekin zalantza ezinezko konpromisoa dugu EH Bildun, eta hori izango da gure jardueraren ipar-orratza, eta herritarren egiazko premiei erantzungo dieten eta Euskal Herriaren egituratzeari lagunduko dieten egitura edo azpiegitura sozialen, energetikoen, garraiokoen zein beste edozein arlotakoen defentsa, beti ere herritarren interesak lehenetsiz.

Helburu horrekin, elikadura burujabetza, nekazaritza eredu ezberdinak, energia burujabetza aldarrikatuko ditugu. Era berean, Garoña, fracking eta autopista elektrikoen salaketa egingo dugu.

Hautagaien konpromisoa herritarrekin

EH Bildu ordezkatuak duten pertsonak bere jardueran eta interbentzio instituzional eta politikoan lehendik onartutako konpromiso zehatzen arabera arituko dira, beti ere EH Bilduren proiektua eta printzipio nagusiak onartuz eta errespetatuz.

EH Bilduren hautagaiak bere jardura politikoan zintzotasunez, gardentasunez eta pertsona guztien eskubideekiko errespetuz jokatzeko konpromiso irmoa hartzen dute, eta urratuz gero, bere karguari uko egingo diote.